



Gogotsu, azken unera arte

TOLOSA ▶ Azken eguna izanagatik festa giroak ez zuen etenik izan Asteartitan, eta irudimenak eta koloreak hartu zituzten, beste behin, herriko txokoak; sardinaren hiletarekin amaitu ziren atzo 2006ko Inauteriak; gutxiago falta da hurrengoetarako ▶ 4-5



Veneziarrak. Haien hiriko Inauteriak dituzte hauek gustuko, baina Tolosakoen berri ere entzun dute non-bait, eta aurten hemen egon nahi izan dute, kultur trukea egiteko. I. ASENSIO



Meloi saltzaileak. Txiringittoa jarri zuten hauek San Frantzisko ibiltokian. Asko salduko ote zuten? I. TERRADILLOS



Erromatarrak. Cesar, enperatriza, soldaduak, kristauak, lehoiak, kuadrigak... Denetik zuen hauek Tolosan jarritako zirkoak. L. MONTES

TOLOSA ▶

Pattar Zezenean, inoiz baino ausartago

'Tolosa' izeneko zezena irten zen ▶ 6



Tolosa izeneko zezena, atzo, zezen-plazan; han jaio zen 2003an. I. GARCIA

ANTXON IZAGIRRE ▶ INAUTERIZALEA

«Eromen ziztada dira Inauteriak»

«la beti bezperan» prestatzen ditu mozorroak ▶ 2

BIHAR EZ DA HITZA-RIK IZANGO

Zaldunita egunean lan egin zuen HITZAREN erredakzio taldeak, Inauteriei buruzko informazioa jaso eta horren berri emateko. Igan-dean lan egin zuenez, gaur, asteazkena, atsedeen eguna hartuko du lan taldeak. Horregatik, bihar ez da HITZA kaleratuko. Etzi izango du-zue berriro esku artean.



Erraldoiak eta buruhandiak 20. hamarkadan

ATZERA BEGIRA ▶ Erraldioen eta buruhandien konpartsak ere parte hartzen du Inauterietan. Kalderero egunean, adibidez, goizean zeharkatzen ditu Alde Zaharreko kaleak. Inauteriei buruzko bi erraldoi ditu, gainera. Argazki honetan, XX. mendeko

20. hamarkadako erraldoiak eta buruhandiak ageri dira. Tolosatik sarritan atera beharko zuteneguz herrietako jaietan ibiltzeko, 1923an Udalak erraldoiak eta buruhandiak inori ez uztea erabaki zuen. 'ARGAZKIAK TOLOSA (1920-1945)'. JOSE MARIA TUDURI ESNAL

ANTXON IZAGIRRE ▶ INAUTERIZALEA

«Zitxada bat da Inauteria, eromena sentitzen den garaia»

Nerea Urbizu. Tolosarra, inauterizalea jaiotzen zenetik, bere arabera. Antxon Izagirre Tolosan ezagutzen ez duenik ez da, izenez ez bada, mitikoa delako beti ere. Hirukote bezala, nahiz bakarka gehienetan, trapu sinpleekin ere atentzioa deitu duenetakoa, eta sariak irabazi dituenetakoa.

Inauteriak: zer esan nahi dute zuretzat?

Zitxada bat da, eromena sartzan zaizu gorputzean.

Nola ezagutu zenituen?

Betidanik ezagutu ditut. Ikusi egiten nituen eta soltero nintzela hasi nintzen moztortzen. Pentsa zenbat urte pasatu diren!

Tolosarrak inauterizale behar al du izatez?

Ez, ez du zertan. Hori librea da. Kanpoko batek ere Inauteriak berdin bizi ditzake, biziki, eta lehen aipatutako txerto hori denok sentitu dezakegu. Inauteriak ikaragarriak dira.

Nola definituko zenizkioke Inauteriak kanpotik datorren bati?

Inauteriak? *Aki reir, pasar bien, bonito.*

Mozorrorrik onena? Eta lehenengoa?

Urte asko daramatzat moztortzen, baina ia beti bezperan prestatu izan ditut. Hemen benetako meritoa emazteak dauka! Josten aritzen zen eta. Dena trapuekin egiten genuen, trapu bat beste batekin lotuz. Ez dut sekula arroparik erosi.

Zer gustatzen zaizu gehien jai hauetatik?

Gauza bat da horrela: festarik onenak herrietakoak dira. Ez dago festa hobeagorik, ez jaialdirik ez ezer.

Zein alde dute egungo Inauteriek eta lehengokoek?

Jende gazte gehiago ibiltzen da orain. Erritmo gehiago dago, baina orokorrean beti gualtsu.

Mozorroetan bada aldate-ta...

Mozorroak asko aldatu dira, bai: txabakanismoa da ona Inauterietan, baldarra dena. Erosen denean ez dauka meriturik.



HITZA

TRAGO BATEAN ▶

Egunik onena? Denak.
Mozorro bat? Ez dut pentsatzen zertaz atera behar duan, bezperan beti, eta ez du ezer zehatza izan beharrik.
Gaua ala eguna? Eguna. 19:00etarako etxean gaude

normalean. Egun osoan parrandan ibili ostean nahikoa.
Nola asetzen duzu sabela? Paella jaten genuen askotan, eta edan beharrik ez genuenez, jatearekin nahikoa genuen. Ondoren, xexenetara.

DATAK ▶



Egutegi judutarraren arabera, martxoaren 20aren ondorengo ilargi beteari segitzen dion lehen igandea da berpizkunde igandea. Hala, egun horri zazpi aste kenduta Zaldunita egunaren data ateratzen da. Datozen urteotako Zaldunita eguneko datak dira ondorengo zerrendan agertzen direnak:

- 2007. Otsailak 18.
- 2008. Otsailak 3.
- 2009. Otsailak 22.
- 2010. Otsailak 14.
- 2011. Martxoak 6.
- 2012. Otsailak 19.
- 2013. Otsailak 10.
- 2014. Martxoak 2.
- 2015. Otsailak 15.
- 2016. Otsailak 7.
- 2017. Otsailak 27.
- 2018. Otsailak 11.
- 2019. Martxoak 3.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320



TOLOSA ▶ BANAKAKO MOZORROAK



Asto eta guzti etorri zen herrira, atzo, honako ijitto famili hau. JAIONE ASTIBIA



Hauk ez zuten hegazti gripearen beldurrik nonbait, kaiolan zeuden eta. INIGO TERRADILLOS



Sanferminak, Versallesko printzeak... J. A.



Hegazti gripearen aurkako fumigatzaileak, txantxoak... J. A.



Txorimaloak, eteko batarekin telebista ikusteko prest... J. A.

Gaurko ajeari gaina hartzeko atzoko festa gogoratzea ona

Inauteriek azken orduak egin dituzte bart, baina horregatik ez txarragoak; besteak beste, banakako mozorro irudimetsu askoak ere ikusi dira egunotan

JAIONE ASTIBIA

Atzo Sardina Zaharra erreta, Inauteriek aurtengo ibilbidea egintzea dute dagoeneko. Gaur goizean hor dabilta

oraindik, festetan iraupen luze-ko kategorian ibiltzen diren aukeratu gutxi batzuk; besteak jada zazpi egun hauetan bizitakoaz oroitzuz eginen diote aurrerako gaurko egunari.

Horrela, bada, karrozak eta konpartsak ez ezik, banakako hainbat eta hainbat mozorro kaleratu dituzte inauterizaleek: irudimentsuak oso, pertsonaiak, egunerokotasuneko

gaien ingurukoak edo ez, batzuk besteak baino landuagoak... Baina guztiak koloretsuak, zinez, eta antzerkitxoak egiteko gutuzi aproposak inondik ere, bakoitzak bere janzkeraren

araberako papera betez: pailazoak, sorginak, txantxoak, mexikarrak, apaizak, ijitoak, hegazti gripearen aurkako albatariak... eta beste hainbat eta hainbat zer ziren ere asmatzea zaila zirenak, baina nolana ere irudimentsuak hagitz.

Trapu pare bat soinean hartu eta aitzakia gutxi nahikoa da festarako; baina nabarmendu behar da tolosarren eta auzo-herrietako inauterizaleen ageri-agerikoa dela, gutxiasko mozorro txukunak agertzen baitituzte urtez urte. Gaurkoa atsedenerako hartu, eta ziur datorren urterako ideien bat badagoela jada.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

hilberria ▶



Trinidad Muñoa Arratibel
(Manoli)

Otsailaren 28an hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
—Goian bego—



Bere senarra: Jose Leunda; seme-alabak: Antonio, Izaskun eta Ramon Rodriguez, Martin eta Axun Atxega, eta Manuela eta Jacinto Lopez; bilobak: Maider, Leire, Onintze, Beñat, Nerea eta Iker; ezkon ahizpa: Agustina Lasa; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko SEIETAN, TOLOSAKO CORPUS CHRISTI parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Almirante Rekalde, 1
oharra ▶ girozuta beira Tolosaldeko Funeraria Vascongoda
Tanatorioan egingo da gaurko 10:45ak arte

TOLOSA, 2006ko martxoaren 1a



KARROZAK ETA KONPARTSAK ▶



'Bukatu da, bukatu da...'

Amaitu dira aurtengo Inauteriak baina azken eguna izanagatik festa giroak ez zuen etenik izan atzokoan; azkeneko emango dizuegu, bada, Hitzako kazetariok festen berri, datorren urtera arte

UDABERRI UDALBIDE UDALBILTZA !!!

EUSKAL HERRIKO UDAL HAUTETSIEIEN 4. BILTZARRA

MARTXOAREN 4AN DURANGOKO LANDAKO GUNEAN
GONBIDATUA: JUAN JOSE IBARRETXE LEHENDAKARIA



Dantza eta gutxi eskaini zuten atzokoan alzemtik etorrirako kubatarrek. Haur, gazte eta helduak; guztiak bat egirik ikuslekin bikaina burutu zuten bertan bildutakoan gozamenetako. i. i. ustea



Ardi labak ere ez zituen Inauteriak galdtu nahi izan eta arrosaz jarritako mitarretan balera aritu zen. n. ustea



Areson Eguberrietan Olenzero lapuritu zuteneko irudikatu zuten. i. i.

I. TERRADILLOS. N. LATABURU

Sardimaren hiletarekin bukatu dira 2008ko Inauteriak. «Azkenean», dio batek: «Amaitu al dira jadanik?», besteak. Sentimendu kontrajariak herriartean arloan, baina errealitate bakarra: herria berera itzuli da gauek aurtera, oraindik ere kaleak festaren ondorioak islatzen baditu ere. Hitzako kazetariok eta bertan lanean dihardagunok ahalik eta ondoen salatu gara festa hauen nondik norakoak zuei iragartzeko, eguneko egun.

Atzokoan ere ez dugu ahaztu nahi izan, adreina izan arren aurrekoak bezain koloretasun izan baitzen. Karrozek eta platatormok kaleak hartu eta egun guztian zehar musikaz eta dantzaz bete zuten herria. 6 eguneko nekora ez zen inondik inora igertzen aurreko eta ondo-

tuengan, eta azken indarrak atera zituzten egun borobila izan zedin. Hotsa, aurreko egun guztietan borobila, herria izan zen, baina ez zuen inor kilizerik lortu.

Irudimena ederreki erabili dute aurtengoan ere tolosarrak, eta pil-pilean dauden gatake nahiz betikoak jorratu dituzte egunotan. Karrozen gainean adin eta eta guztietako jendea ikusi ahal izan dugu, askotariko antzezpenak buruzten: Usualgo kirolekian, Leitidor zinema aretoan, batu-kadaren doinupean, ero-erterren bateko egoiliarrek ere Tolosa jaitsi ziren Inauterietz gozatzeko, beti ere haien zuintzaleak alboan zintzela...

Bukatu da, bukatu da... Indarrak berreskuratu datorren urterako, diagoeneko egun bat gutxiago geratzen baita 2007ko Inauterietarako!



Bikingsak egun batez fitzosa utzi eta Tolosako errepidean ibili ziren poik. n. ustea

Iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Aduna. Bifamilia salgai. 150 m2 eta 60 m2 ko garagea. Kallateko herriarteko. Lanuzkoa. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. Erabi berria den etxebizitzia ederra salgai. 3 logela. Garaje-irte. Oso polita. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. Erabat bermitutako etxebizitzia salgai. 3 logelarekin. Etxeondoko. Lorategiarekin. 38.800.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Barra. Etxebizitzia polita salgai. Berriua. Sukalde-jangela, hiru logela eta bainugelak. Kanpoaldera. 41.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Lagortea, Berrobi eta Albitzur. Egutera oneto baserriak, lantutakoak. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Segura. Barakako baserria, lantutakoak. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Villabona. 90 m2 ko etxebizitzia salgai. Egutela, sukaldia, 3 logela eta bainugela. Berriua. 42.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zuzurki. Egutela, sukaldia, 2 logela eta bainugela dituen etxebizitzia. Buztera sarretako moduan. Tradetakoarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.



PATTAR ZEZENA ▶



Giroa. Asko aritu ziren zezenen aurrean korrika, ikuslegoaren gozamenerako. i. g.



Arriskua. Ausardia erakutsi zuten gazteek, baina baita errespetua ere adardunen aurrean. i. g.



«Hemen dela». Hesiaren bila joan zen argazkiko gaztea babesaren bila. i. g.

Gaupasaren ondoren, ausardia pil-pilean

Pattar Zezenaren aurrean gazte ugari izan zen atzo goizean; txarangek ederki animatu zuten giroa ekitaldian zehar

IMANOL GARCIA

Pattar Zezena izaten da lau hankakoak protagonista diren ekitaldirik ikusgarriena. Zergatik ote? Gaupasa egin dutenen *ausardia*? Ganaduzaleek

66

Bokatak, Pintxoak eta Plater Konbinatuak, ugari.
-- 7etan irekita --

jai zoriontsuak pasa!

M.J. Iraola, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 67 19 37

ordu txiki horietarako gordezten dituzten zezen puskak?

Asteartita goizean jende ugari joaten da zezen-plazara. Batzuk zezenaren aurrean parrandari amaiera ematera. Beste batzuk, goiz jaikita, adardunek zenbat gazte harrapatzen dituzten zenbatzera.

Zezenzale askok ukitu zuten zezen-plazako hondarra. Beste askok pase ederrak eman zituzten. Eta gehienek hesi gainera jauzi egiten zuten segurtasun bila.

Hondarrean jendea batera eta bestera korrika zihoan bitartean, harmailetan zegoena ikuskizunarekin eta musikarekin gozatzten zuten. Gutxienez sei txaranga izan ziren ekitaldia animatzen. Batek amaitzen zuenean bestea hasten zen eta askotan bi edo hiru txaranga batera entzuten ziren.

Pattar Zezena amaitu eta gero, festak ez zuten etenik izan. Txarangek herriaren erdialdera abiatu ziren, jendetzak atzetik jarraitzen ziela.



Lurrean bueltaka. Zezenek aukera asko izaten dituzte Asteartita goizean gazteak harrapatzeko. i. g.



Ikuslegoa. Jende ugari izan zen atzo goizean zezenzaleen korrikaldiak ikusten. i. g.



‘Tolosa’ izeneko zezena

Zezenen munduan istorio bixiak ere izaten dira, Tolosa izenekoarena bezala. Atzoko Pattar Zezenean atera zen laugarren zezena izan zen. Handiena —250 kilo ditu— eta errespetu gehiena sortu zuena. Bada, Lasturgo ganadutegiko zezen horrek lotura berezia du Tolosa herriarekin, Tolosako zezen-plazan jai

baitzen orain hiru urte, 2003an, Zaldunita egunez. Bi egun iraun zuen erditzeak. Eta berriro bueltatu da *Tolosa* bere jaiotetxera. Oraingoan, baina, plaza erdian azaltzeko. Eta ezusteko pare bat emateko ere: bitan ahalegindu zen atzo goizean zezen-plazako hesiaren bestaldera jauzi egiten, baina ez zuen lortu. Eskerrak.

ONDO PASA JAIK!

TEL.: 943 65 07 84
Nafarroa etorb. 17
TOLOSA

YOSU THERMIK

POLIURETANO AROZTEGIA, PVC, ALUMINIOA
LEIHOAK, PERTSIANAK eta ARMAIRUAK NEURRIRA
Rondilla kalea, 14 bis. Tel eta Faxe: 943 67 34 59
20400 TOLOSA

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 ordu lan egiteko. Eskarmentua duena. Deitu 635 745 291.



BARRAKAK ▶

Hauek ere, urtero legez

Alhondigan ume mordoak bildu da egun hauetan etengabe lanean aritu diren barraketara; gaur, umearen eguna, txartelak erdi prezioan izango dira

IÑIGO ASENSIO

Inauteriak gazteentzako ala helduentzako festak diren galdetzek tontakeria dirudi. Edonorentzako, edozein adin-ekoentzako alegia, egindako jaiak direla esan lezake edonork. Inauteriaz gozatzeko nahikoa omen da ongi pasatzeko gogoa soinean ekartzea; ala diote, behintzat. Baina, zer dute gure Inauteri maitatuek ume eta gaztetxoentzat? Haien erantzuna azkarra eta zuzena izaten da maiz: barrakak.

Tiro pitxoia, arranoa, matxin-saltoa, autotxoekak, zaldiko maldikoa, bingoa, dragoia... Era guztietako jolasez gozatzeko aukera izan dute egun hauetan etxeko gaztetxoek Alhondiga inguruan. Prezioa askorentzat garesti samarra bada ere, gaur umeen eguna dela eta barrakak erdi prezioan izango dira. Helduek atse-den hartzen duten artean, gazteek azken xoxak utziko dituzte barrakatan.



Altuerari beldurrik ez omen diote gazteek arranoa igotzean. I. ASENSIO



Gurasoen alboan pozik dabil neskatxo hau. I. ASENSIO



Gizon hau ezagutzen? Berak Inauteriak ondobxo. I. ASENSIO



Dragoia, barraketako klasikoa ere, jendez gainezka. I. A.



Batzuek nahiago dute autoboketan aritzea. IÑIGO ASENSIO

iragarki laburrak ▶



Albiztur. Zatituriko baserria salgai. Berrikuntza behar du. 200 m²-ko hiru solairu eta 35.000 m²-ko lursailarekin.
Alkiza. Bi familientzako baserria salgai. Berritzeko. Informazio pertsonala.
Andoain. 80 m² dituen etxebizitza salgai. Erabat berritua. Dena kanpoaldera. Iggailuarekin. Ikuspegi ederrak.
Anoeta. Duplex etxebizitza, garajea aukeran.

Berastegi. Familia bakarrarentzako etxea salgai. 4.000 m² dituen lursailarekin.
Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza. Berritua.
Donostia. Portu-Ene. Berrituriko etxebizitza ederra. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak.
Elosua. Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m²-ko lursailarekin.
Ibarra. Berritutako etxebizitza beheko solairuan, 30 m²-ko bulegoarekin.

Irura. Laskibar aldean, eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Garajea aukeran.
Tolosa. Zumalakarregin, 150 m²-ko etxebizitza. Egoera ezinhobean. Garajea aukeran.
Tolosa. Pablo Gorosabel. Eraikuntza berrian azken etxebizitza salgai. 65 m² erabilgarri.
Tolosa. Oria kalean, 40 m²-ko lokal komertziala, tarteko solairuarekin, alokairuan edo salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabelen, marbxan dagoen lokal komertziala salgai. Informazio pertsonala eskaintzen dugu.
Tolosa. Gernikako arbolan, 35 m² dituen lokal komertziala salgai. 35 m²-ko sotoarekin.
Tolosa. Maituna zonaldearen atzealdean, trasteleku berriak salgai 8.600 eurotik aurrera.
Tolosa. Berdura plazan, berrituriko lokal komertziala alokairuan. Guzтия erakuslehu.



ZIRI-ZIRI ▶ JOXEMI SAIZAR

Ajea ezin pasea

Musika da Inauterien muina, saltsa eta ardatza. Eta egun hauetan entzuten diren musika mota guztien artean txarangena nabarmentzen da gehien. Errepertorio klasiko-koko 23 piezekin batera, beste hainbat —edo gehiago— elkarteren doinuak dira festaren hezurdura. Horiek bereizten eta interpretatzen —edo ejekutatzen?— nahiko lan izaten dugu. Eta dena gidatzeko zuzendari izeneko bat izaten txarangaren aurrean, batutarekin konpasa, hasierak eta bukaerak ematen.

Zuzendari bakoitzak bere estilo propioa izaten du. Badira Inauteri musika odolean bizitzen dutenak eta kemen eta ahalegin guztia horretan jartzen dutenak. Beste batzuentzat, berriz, erritmo guztiak berdina dira, habanera, kalejira edo jota izan ez da aldaketarik sumatzen. Noiz hasi eta noiz bukatu asmatzen ere nahiko lan izaten dute askok. Horretarako musikariren baten keinua izaten da azken unean salbatzailea, piezari erre-matea txukun antxean emateko.

Beste aldekoen artean ere —entzuleak, alegia— denetik izaten da. Benetako tolosarrekin badakite kalejira behar bezala eramaten: zati bat aurreraka saltoka eta piezaren beste zatia atzeraka. Habanerarekin eta valsarekin ere defenditzen dira. Jota, fandangoa eta arin arinarekin hala moduz. Kanpokoei, berriz, berdina zaie arde eta so, edozein piezatarako pauso bera hartu eta nola-hala jarraitzen dute.

Hiru egunetan barru-barruraino sartu ondoren, gaur esnatzerakoan oraindik doinu horiek buruan izango ditugu. Ondoko koplariak botako luke: «Batzuen gozamina, besteen desfasea / Hauster Egunerako denentzat pasea».

GORA ETA BEHERA ▶



Urtero bezala, giro aparta

Ez genuke imaginatu nahi zer nolako giroa egongo litzatekeen eguraldi bikaina egin izan balu, edo gutxienez eguzki izpi lotsatiren bat agertu izan balitz. Inauterietako giroa, urtero bezala, bikaina izan da. Jende askok hartu du parte txarangetako ibilbideetan. Bikaina izan da haien lana, eta bikainak ere karrozak. Jendea dagoeneko hasiko al zen hurrengo urteko mozorroetan pentsatzen? Iruñeko sanferminetan esango luketen bezala, egun bat gutxiago falta da hurrengo Tolosako Inauterietarako! L. MONTES



Inauteriak jada bukatu egin dira

Bukatu dira aurtengo Inauteriak. Atzo ere kalean jende gutxiago zebilela nabaritu zen, eta gutxinaka-gutxinaka etxeetara erretiratu egin zen, gaurko egunari halamoduz hasiera gogorra era samurragoan emateko. Eguzki izpirik ere ez da ikusi, baina horri aurre egitea errazagoa egiten zaio inauterizaleari. Kaleetako kolore biziak desagertu egingo dira, eta urtero bistan jartzen dituzten trapu deigarriak kaxara sartuko dituzte, irrikaz hurrengo batez erabilgarriak izango diren itxaropenarekin. I. GARCIA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Feli Zuriarrain (Alkiza).
Zorionak eta muxu bat etbekoen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...